



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 2a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—10-24/LEY-00003. Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen baitzaio mailegu bat emateko Sunsundegui SARI. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00022. Galdera, osasun-laguntzarako Aragoirekiko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00023. Galdera, harrera-prozedura eta -irizpideetan eginiko aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00024. Galdera, larrialdiko harrerako familia batean harrera izateko gehieneko epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00025. Galdera, Lodosako DBHn D eredia ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00026. Galdera, larrialdiko harrerako familien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00027. Galdera, harrerarako gehieneko denbora-epea gainditzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00028. Galdera, larrialdiko harreraren batez besteko iraupenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00029. Galdera, gaur egun larrialdiko harrerako familietan dauden adingabeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00030. Galdera, larrialdiko harrerako familietan harrera eskatzen duten adingabeen eskaerari erantzuteko gaur egun dauden familiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00031. Galdera, larrialdiko familia batera bideratuak izateko itxarote-zerrendan dauden adingabeen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00032. Galdera, harrerako familien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- 11-24/PES-00033. Galdera, harrera izateko itxarote-zerrendan dauden familien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00034. Galdera, gaur egun harreran dauden adingabeen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00035. Galdera, harrerako familia baterako itxarote-zerrendan dauden adingabeen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00036. Galdera, egokitasuna onartzen denetik adingabe bat harreran hartu bitartean familiek izaten duten batez besteko itxarote-denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00037. Galdera, harrerako familia batera bideratzen ez den tutoretzapeko adingabe bakoitzeko kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00038. Galdera, larrialdiko harrerako familia batera bideratzen den adingabe bakoitzeko kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00039. Galdera, behin harrerarako egokitasuna emanda lehentasun-ordena ezartzeko irizpidea
- 11-24/PES-00040. Galdera, adingabe bat adopzioan hartzeko itxarote-zerrendan dauden familien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00041. Galdera, 2015etik izandako adopzio-prozesuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00042. Galdera, 2015etik Nafarroan adingabe baten adopzioa eskatzen duten familien batez besteko itxarote-denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00043. Galdera, Nafarroan adopzio prozesu batera bideratutako adingabeak jasotzeko familiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00044. Galdera, harrerako familia gehiago erakartzeko kanpainaren emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00045. Galdera, arantza bifidoa eta/edo hidrocefalia duten pertsonak kronikoen estrategian sartuak izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00046. Galdera, adopziorako prozeduran eta irizpideetan izandako aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00047. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak indarra hartu zuenetik hark izandako aplikazio mailari buruzko txostenik egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00048. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikulua betetzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00049. Galdera, geure ANECA bat izateko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00050. Galdera, curriculumeko prestakuntza-praktika ez-ordainduak egiten dituzten ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioetarako ordainak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00051. Galdera, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzearen ondorioz NUPen izandako kostu-igoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00052. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria dela-eta legegintzaldi honetarako dauden planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

10-24/LEY-00003. Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen baitzaio mailegu bat emateko Sunsundegui SAri

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Foru Legea onetsi zuen. Horren bidez, Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen zaio mailegu bat emateko Sunsundegui SAri.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen baitzaio mailegu bat emateko Sunsundegui SAri

HITZAURREA

Nafarroaren Garapen Sozietatea SL sozietate publikoak Parlamentuari berariazko baimena eskatu dio, Sunsundegui SAri mailegua emateko eragiketa batzuk formalizatzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak, maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak egin zion aldaketaren ondoren, 82.ter artikulua 2. apartatua Parlamentuaren berariazko baimena exigitzen du edozein pertsona fisiko edo juridikok maileguak jaso ahal izateko, horien zenbatekoa ekitaldi bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko 5 baino gehiagokoa denean. Gehieneko

arrisku bizi hori emaile den entitatearen arabera aintzat hartzen da; hau da, maileguak nor emanak diren: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ala haren menpeko entitateek.

2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 13ko 2/2024 Foru Legeak, 24.5 artikuluan, 135.000.000 euroan ezartzen du enpresa-erakunde publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek emandako maileguen gehieneko arrisku bizia, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82.ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zenbateko horren % 5ek 6.750.000 euro egiten du.

Nafarroaren Garapen Sozietatea SLk emanak dizkio Sunsundegui SAri 6.400.000 euro egiten dituzten maileguak, eta 2024an beste mailegu bat ematea aurreikusten du, 6.000.000 eurorainokoa, halatan gainditurik Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82.ter artikulua 2. apartatua ezarritako muga. Horregatik, bidezkoa da artikulua horretan aurreikusitako baimena ematea.

Artikulu bakarra. Mailegua baimentzea.

Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen zaio 2024an mailegu bat egiteko, eragiketa bakarrean nahiz batzuetan, Sunsundegui SArikin, gehienez ere 6.000.000 eurokoa.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00022. Galdera, osasun-laguntzarako Aragoirekiko hitzarmenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak osasun-laguntzarako Aragoirekiko hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Aragoirekin osasun arreta emateko hitzarmenari buruz (11-24/PES-00022). Hona galdera eta Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

urtea	Kanpo-kontsultak
2023	3292
2024	507

urtea	Ospitalea	Ospitaleratzeak
2023	Reina Sofia Ospitalea	370
2023	Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa	108
2024	Reina Sofia Ospitalea	75
2024	Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa	16

urtea	Ospitaleetako larrialdiak	Larrialdiak
2023	Reina Sofia Ospitalea	3173
2023	Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa	268
2024	Reina Sofia Ospitalea	457
2024	Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa	31

– Indarrean dago osasun laguntzarako hitzarmena Aragoirekin Tarazonako eta/edo Sos del Rey Católicoko oinarrizko eskualderako? Hala ez bada, noiz arte egon da indarrean?

Hitzarmena 2023ko apirilean izenpetu zen, eta lau urteko iraupena zuen.

– Zenbat urtez egon da indarrean hitzarmen hori eta zenbat osasun laguntza eman zaizkie Aragoiko Komunitateko pertsoneri indarraldiko urte bakoitzean?

Erkidego mugakideekin osasun laguntza emateko lankidetzak hitzarmenak osasuneko eskumenak autonomia erkidegoei transferitu baino lehenagokoak dira.

Aldian-aldean eguneratzen dira.

2023tik gaur egunera bitarte Tarazonako eta Sos del Rey Católicoko pertsoneri O-NOZen emandako arretak taula hauetan jaso dira:

– Zergatik ez zaio osasun laguntza hori Aragoiko Komunitateari zuzenean fakturatu, edo, gutxienez, zergatik ez da Osasun Kohesiorako Funttsaren Informazio Sistemari sartu?

Erkidego mugakideen arteko osasun arretarako hitzarmenak ezin du eragin aldebiko konpentsazio ekonomikorik eta ez da Osasun Kohesiorako Funttsaren Informazio Sistema bidez konpentsatzen.

Osasun Ministerioa beste mekanismo batzuk erabiltzeko aukera ari da aztertzen arreta horietan erkidegoen arteko konpentsazioak egiteko.

Osasun Kohesiorako Funttsaren Informazio Sistema bidez erregistratzen eta konpentsatzen

ahal diren prozesuak kontuan hartzen ari dira prozedura horretan.

Aragoiko Autonomia Erkidegoak 2023an zehar Osasun Kohesiorako Funttsaren Informazio Sistemaren bidez 63 arreta eskatu ditu Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, sistema horren bidez araututako arreta eredu eta prozeduren inguruan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00023. Galdera, harrera-prozedura eta -irizpideetan eginiko aldaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak harrera-prozedura eta -irizpideetan eginiko aldaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00023):

- Harrerari dagokionez, aldaketarik egon al da Nafarroako Gobernuak azken urteetan erabilitako prozeduran eta irizpideetan? Hala bada, zeintzuk?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialerako, Ekonomia Sozialerako eta Enplegurako kontseilariak ematen dion informazioa:

2022. urtean aditzera eman zen 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesak eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko, eta eguneratu egin zen harrera prozesua, haurrei buruzko aurreko legea 2005ekoa baitzen. Prozeduran eta irizpideetan aldaketa sakonak egin beharrean, prozesua zehatzago garatzen da, azken urteotan gai horrek izandako bilakaerarekin bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialerako, Ekonomia Sozialerako eta Enplegurako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00024. Galdera, larrialdiko harrerako familia batean harrera izateko gehieneko epeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak larrialdiko harrerako familia batean harrera izateko gehieneko epeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00024):

• Zein da adingabe bat larrialdiko familia batean egoteko gehieneko epea?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legeak ezartzen du haur bat larrialdiko familia batean egoteko gehieneko aldia sei hilabetekoa dela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00025. Galdera, Lodosako DBHn D eredia ezartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Lodosako DBHn D eredia ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-24-PES-00025 galdera egin du idatziz Lodosako DBHn D eredia ezartzeari buruz. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Datorren ikasturtean, Hezkuntza Departamentuak D eredia eskainiko du Lodosako Pablo Sarasate BHIko DBHn.

Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko Hezkuntzako kontseilariaren Foru Aginduaren Proiektuaren artikulua bakarraren 2. apartatuaren arabera, D eredia ezartzen da Lodosako Pablo Saratsate BHI, eta izarra-San Adrián eskualdean Lodosa barrutia sartuko da, eta hartan egonen da "Pablo Sarasate" BHI (Lodosa) bigarren hezkuntzako eremua eta azpierrezemua, lehen hezkuntzako bi eremu hauek barne hartuko dituena: "Ángel Martínez Baigorri" LHIP (Lodosa) lehen hezkuntzako eremua (Lodosako udalerría, Lodosa herria) eta "Virgen de las Nieves" HLHIP (Sesma) lehen hezkuntzako eremua (Sesma udalerría, Sesma herria).

EDUCAn jasotako datuen arabera, Lodosako Ángel Martínez Baigorri HLHIPan bost ikasle

daude Lehen Hezkuntzako 6. mailan D ereduari PAI programarekin. Halaber, Lodosako Ibaialde Ikastolan lau ikasleak egiten dute Lehen Hezkuntzako 6. maila D ereduari.

Nafarroako ikasle orok eskatzen ahal dute 2024/2025 ikasturtean Lodosako Pablo Sarasate BHIin DBHko 1. mailarako D eredurako egiten den eskaintzan onartuak izatea. Ikasleak onartuko dira zenbat plaza dauden kontuan hartuta, eta onartzeko indarrean dagoen araudian ezarritako irizpideak aplikatuta adjudikatuko dira plazak.

Lodosako Pablo Sarasate BHIk 2024/2025 ikasturterako A, G eta D ereduak eskainiko ditu behin izapidetzen ari den foru agindua onetsi eta indarrean sartzen denetik.

Hizkuntzak ikasteko programak (PAI) dituzten lehen hezkuntzako ikastetxeentzako atxikipen zentroa denez, nola D ereduari hala A eta G ereduari, Lodosako Pablo Sarasate BHIk Bigarren Hezkuntza Eleaniztuneko programa eskainiko du aipatutako ereduari, horretarako betekizunak bete eta sartzeko eskatzen duten ikasleentzako. Hala ere, ikastetxeak aipatutako ereduak eskainiko ditu Bigarren Hezkuntza Eleaniztuneko programa horri lotuta egon barik ere bai.

DBHn hizkuntzak ikasteko programetan sartutako ikasketen curriculumaren orduen antolamendua egitea ikastetxearen eskumena da, hezkuntza proiektua konfiguratzeko duenean ezartzen du eta kasuan kasuko hizkuntza planean jaso behar da. Berori ikasturte bakoitzerako berrikusten da.

2024/2025 ikasturtean D ereduari ikastetxean lehenengo aldiz eskainiko denez, balizko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako nahiz Atal Eleaniztuneko Programaren konfigurazio zehatza, horietarako eskaria egonez gero, une honetan oraindik ez da gauzatu, eredu hori berriki sartu baita ikastetxearen hezkuntzako eskaintzan. Edozelan ere, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarrizko alderdiak arautzen dituen apirilaren 26ko 43/2023 Foru Dekretuari men egin beharko dio, bai eta aipatutako dekretua garatzeko une honetan izapidetzen ari den foru aginduan jasotakoari ere.

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urteroko ebazpen bidez (horren bitartez deitu eta garatzen da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasketak egiteko ikasleak onartzeko prozesua) derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleak onartzeko prozesuaren egutegiko hasiera data baina lehen, ikastetxeak familiei jakinaraziko die zein den ikastetxean ezarritako hezkuntzako eskaintza.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-24/PES-00026. Galdera, larrialdiko harrerako familien kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak larrialdiko harrerako familien kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00026):

• Larrialdiko harrerako zenbat familia daude gaur egun?

Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaur egun Nafarroan larrialdiko harrerako zortzi familia daude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00027. Galdera, harrerarako gehieneko denbora-epea gainditzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak harrerarako gehieneko denbora-epea gainditzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00027):

• Adingabe bat larrialdiko familia batean egoteko gehieneko epea gaindituz gero, zer gertatzen da?

Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Oro har, familia harrera guztiak aldi baterako dira hasieran. Gehienez ere bi urteko epean familiara itzultzeko plan bat egituratzen da guraso biologikoek familia nukleoa banatzea eragin zuten eragozpenak konpontzeko aukera izan dezaten. Planaren bilakaera positiboa ez bada edota adingabea itzultzeko prest ez badago, aldi baterako harrera behin betiko izatera pasatzen da, oro har, harrera egin duen familia berean geratzen da, eta, ezin izanez gero, beste familia batek egiten du harrera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00028. Galdera, larrialdiko harreraren batez besteko iraupenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak larrialdiko harreraren batez besteko iraupenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00028):

- Batez beste, zenbat denboraz egon dira adingabeak larrialdiko familietan azken urteotan? Kopuruak urteka zerrendatu litezke 2015etik hasita?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialletako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilariak ematen dion informazioa:

Larrialdiko familien programak xede du adingabe gazteenak programako familietako batekin egon daitezen soilik babesgabetasunaren balorazioa egiteko beharrezkoa den aldiak irauten duen bitartean. Hori dela-eta, familian egoteko batez besteko aldia sei hilabetekoa da, hau da, babesgabetasunaren balorazioa egiteko legezko epea.

Hala ere, egoera batzuetan epeak laburtzen eta luzatzen ahal dira. Esate baterako, guraso biologikoez borondatez adopziora joateari uko egiten diotenean laburtzen dira, legez sei asteko epea baitago, jaiotzatik zenbatzen hasita, uko egite hori baliozkoa izan dadin; horregatik, adingabe horiek bi hilabete eskas pasatzen dituzte familian. Hala ere, kasu batzuetan familia harreragile bat baino gehiago aldarrikatzen dira familia zabaleko adingabe bat hartzeko, eta horien balorazio egokia egiteak epe horiek gehiago luzatzea eragiten du. Azken batean, batez besteko epea sei hilabete ingurukoa izaten da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00029. Galdera, gaur egun larrialdiko harrerako familietan dauden adingabeei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak gaur egun larrialdiko harrerako familietan dauden adingabeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00029):

• Gaur egun, zenbat adingabe daude, adinaren arabera zehaztuta, larrialdiko harrerako familietan?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Gau egun larrialdiko familietan dauden bederatzid adingabeen adinak honako hauek dira: 4 hilabete, 5 hilabete, 8 hilabete, 10 hilabete, 13 hilabete, 15 hilabete, 18 hilabete, 2 urte eta desgaitasun handia duen 7 urteko beste adingabe bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00030. Galdera, larrialdiko harrerako familietan harrera eskatzen duten adingabeen eskaerari erantzuteko gaur egun dauden familiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak larrialdiko harrerako familietan harrera eskatzen duten adingabeen eskaerari erantzuteko gaur egun dauden familiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00030):

• Gaur egun dauden larrialdiko familiak nahikoak al dira zerbitzu hori behar duten adingabeen eskaria asetzeko?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Ez dago harrera egiteko familia nahikorik, ez eguneroko premietarako, ez bizitegi baliabide baten dauden adingabe guztientzako. Hori dela eta, Departamentuak lanean dihardu etengabe zabalkunde ekintzak aditzera emateko, familia berriak topatze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00031. Galdera, larrialdiko familia batera bideratuak izateko itxarote-zerrendan dauden adingabeen kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak larrialdiko familia batera bideratuak izateko itxarote-zerrendan dauden adingabeen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo

Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00031):

- Zenbat adingabe daude itxaron-zerrendan larrialdiko familia batera bideratuak izateko?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Une honetan ez dago adingaberik larrialdiko familia batean hartua izatea behar duenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00032. Galdera, harrerako familien kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak harrerako familien kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00032):

- Gaur egun, larrialdiko harrerako zenbat familia daude, harrera-motaren arabera zehaztuta?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaur egun harrera egiteko 232 familia daude. Harrera motaren arabera sailkatuta:

- Larrialdiko harrera familiak: 8
- Harrera familia espezializatuak: 3
- Bizikidetzatza etengabeko harrera familiak: 196
- Adingabeenak ez diren familiak: 85
- Familia zabala: 111
- Erreferentziazko harrera familiak: 16
- Ukrainako adingabeei harrera egiteko familiak: 9

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00033. Galdera, harrera izateko itzarote-zerrendan dauden familien kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak harrera izateko itzarote-zerrendan dauden familien kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00033):

• Zenbat familia daude itxaron-zerrendan harrera jasotzeko, harrera-motaren arabera zehaztuta?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilariak ematen dion informazioa:

• Gaur egun, bederatzita familia daude prest adingabe bati harrera egiteko. Harrera motaren arabera:

- Larrialdiko harrera: 0
- Harrera espezializatua: 0
- Harrera arrunta: 8
- Erreferentziazko harrera: 1

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00034. Galdera, gaur egun harreran dauden adingabeen kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak gaur egun harreran dauden adingabeen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00034):

- Gaur egun, zenbat adingabe daude harreran, harrera-motaren eta adingabeen adinaren arabera?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaur egun, 262 adingabe daude familia harre-ran, eta 18 urtetik gorako 35ek laguntzak jasotzen jarraitzen dute.

Harrera motaren eta adinaren arabera:

Harrera mota	ADINA					Guztira
	0-3 urte	4-6 urte	7-10 urte	11-14 urte	15-17 urte	
Larrialdia	8		1*			9
Erreferentzia			1	7	6	14
Aldi baterakoa	6	14	23	9	2	54
Modu iraunkorrean	5	15	36	60	56	172
Ukrainakoen harrera			2	3	6	11
Espezializatua			2			2
	19	29	65	79	70	262

*Premia bereziak dituen adingabea

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00035. Galdera, harrerako familia baterako itxarote-zerrendan dauden adingabeen kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak harrerako familia baterako itxarote-zerrendan dauden adingabeen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00035):

- Zenbat adingabe daude itxaron-zerrendan, adinaren arabera zehaztuta, larrialdiko familia bat lortzeko?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilariak ematen dion informazioa:

Arauk ezartzen duenez, bizitegi baliabide batean dauden adingabe orok dute familia batean hartuak izateko aukera, jotzen baita adingabe guztientzako neurririk egokiena dela. Hala ere, ikuspegi errealistagoa erabilita, egoerarekin bat, une honetan jotzen ahal dugu bizitegi baliabidetan artatutako 26 adingabe egoten ahal direla prest harrera familia batean esleituak izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00036. Galdera, egokitasuna onartzen denetik adingabe bat harreran hartu bitartean familiek izaten duten batez besteko itxarote-denborari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egokitasuna onartzen denetik adingabe bat harreran hartu bitartean familiek izaten duten batez besteko itxarote-denborari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo

Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00036):

- Zein da familien batez besteko itxarote-denbora egokitasuna onartzen denetik adingabe bat harreran hartu bitartean?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilariak ematen dion informazioa:

Adingabe bat harreran hartzeko esleipena egiteko itxarote denbora zenbait faktoreren arabera da, eta horietatik garrantzitsuena egokitasun eskaerako eskaintzaren norainokoa da (7 urtetik gorako adingabeak onartzen diren, anai-arreben taldeak onartzen diren eta zailtasunen bat onartzen den, dota premia bereziak dituzten adingabeentzat jasotako edozein irizpide).

Azken batean, eskaintza zabala bada, ia berehala esleitzen da. Oso mugatua ez den eskaintza baterako batez besteko itxarote denbora txikia da, hilabete gutxi batzuk baino ez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00037. Galdera, harrerako familia batera bideratzen ez den tutoretzapeko adingabe bakoitzeko kostuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak harrerako familia batera bideratzen ez den tutoretzapeko adingabe bakoitzeko kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00037):

• Zein da Foru Administrazioarendako kostua harrerako familia batera bideratzen ez den tutoretzapeko adingabe bakoitzeko?

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Bizitegi harreraren dagoen tutoretzapeko adingabe baten arretaren kostua, logikoa denez, harrerak duen iraupenaren arabera izanen da. Bizitegi harrera oinarritzko baten hileko batez besteko kostua 6.196,89 eurokoa da. Bizitegi harrera espezializatua behar badu, batez besteko kostua 14.379,6 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00038. Galdera, larrialdiko harrerako familia batera bideratzen den adingabe bakoitzeko kostuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak larrialdiko harrerako familia batera bideratzen den adingabe bakoitzeko kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00038):

• Zein da larrialdiko familia batera bideratutako adingabe bakoitzeko kostua?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Adingabe bat larrialdiko familia batean balortua izaten ari denean emandako zerbitzuaren kostua larrialdiko familia baloratzeko prozesua gehi familiak balorazio prozesuan (harrera) zehar eta harrera amaitu osteko bi hilabeteetan jasotzen duen prestazio ekonomikoa adinakoa da. Prestazioak 35 €/eguneko zenbatekoa du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00039. Galdera, behin harrerarako egokitasuna emanda lehentasun-ordena ezartzeko irizpideari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak ehin harrerarako egokitasuna emanda lehentasun-ordena ezartzeko irizpideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00039):

• Behin egokitasuna emanda, zein da lehentasun-ordena ezartzeko irizpidea?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Adingabe bat familia bati esleitzeko irizpideak teknikoak dira soilik. Adingabearekin etapa bakoitzean esku hartzeko profesionalek adingabearen premian profil bat osatzen dute, eta adingabe horren premiak asetzeko egokiagotzat jotzen den familiaren profil bat ere bai, eta, itxaroten dauden familien artean, proposatutako profiletik hurbilen dagoen familiaren alde egiten da esleipena.

Familia zabala baloratzen ari denean, irizpide tekniko horiek eskaera aurkezten duten familiei egokitzen zaizkie. Beste faktore batzuk hartu behar dira kontuan egokitasunaren balorazioan; izan ere, familia baloratzen da adingabe zehatz bati lotuta (aurrez adingabearekin loturarik duen,

familia biologikoari mugak jartzeko gaitasuna, bere ingurunean mantentzea, ...).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00040. Galdera, adingabe bat adopzioan hartzeko itxarotzerrendan dauden familien kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak adingabe bat adopzioan hartzeko itxarote-zerrendan dauden familien kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00040):

- Zenbat familia daude adoptatutako adingabe bat hartzeko itxaron-zerrendan, adopzio motaren eta izen-ematearen urtearen arabera?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Egokitzat baloratuak izan diren eta itxaroten dauden 35 familia daude, baina 6 aldi baterako etenda daude, eta, beraz, gaur egun 29 daude benetan aktibo. Beste 15 familia daude balorazio prozesuan, eta laster sartuko dira harrera egiteko familien poltsan, egokitzat jotzen badira.

Itxaroten dauden 35 familietatik, 25 familia adopzio nazionala egiteko eskaini dira, eta 10 familia, berriz, nazioarteko adopzioa egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00041. Galdera, 2015etik izandako adopzio-prozesuei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak 2015etik izandako adopzio-prozesuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00041):

- 2015etik, urtean zenbat adopzio-prozesu egin ditu Nafarroako Gobernuak?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

2015etik 183 adingabek izan dute adopzio auto irmoa guztira.

Guztizkotik, 132 nazioarteko adopzioak dira, eta 51, berriz, nazionalekoak.

Urteko datuak egonkor egon ziren pandemiari lotutako urteetara arte; beherakada ia erabatekoa izan zen nazioarteko adopzioan, eta nabarmena, berriz, adopzio nazionalean. 2023az geroztik egoera ohiko balioetara ari da itzultzen.

Bestalde, herrialde batzuek urteotan itxi egin dituzte atzeritarrek adoptatzeko aukerak, beste arrazoi batzuen artean beren babes sistema propioak gehiago garatu dituztelako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00042. Galdera, 2015etik Nafarroan adingabe baten adopzioa eskatzen duten familien batez besteko itxarote-denborari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak 2015etik Nafarroan adingabe baten adopzioa eskatzen duten familien batez besteko itxarote-denborari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo

Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00042):

- Nafarroan adingabe bat adoptatzea eskatzen duten familiek batez beste zenbat denbora itxoin behar dute 2015etik, adopzio eta urte bakoitzeko?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Galdera horren erantzunak, familia harreran bezala, eskaintza motarekin eta eskaintza horren norainokoarekin dago lotuta; beraz, eskaintzan sartzen bada adin gehiagoko adingabeak, anai-arreben taldeak eta premia bereziak dituzten adingabeak hartzea, itxarote denbora nabarmen murrizten da. Alderantziz, eskaintzan adin txikiagokoak eta zailtasunik gabekoak sartzen badira, adopzioa atzeratuko da, profil horretako

haurrak adoptatzea zailagoa delako. Hori guztia adopzio nazionalan.

Nazioarteko adopzioaren arloan gauza bera gertatzen da baina ñabardura batzuk daude, jatorrizko herrialdeek ezartzen dituzten baldintzek mugatuta.

Beraz, adopzioan itxaron beharreko denbora nabarmen handiagoa da harreran itxaron behar-koa baino, eta batez beste 2-3 urte itxaron behar da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00043. Galdera, Nafarroan adopzio prozesu batera bideratutako adingabeak jasotzeko familiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroan adopzio prozesu batera bideratutako adingabeak jasotzeko familiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00043):

- Ba al dago Nafarroan adopzio prozesu batera bideratutako adingabeak jasotzeko familia nahikorik?

Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroan egokitzat baloratutako familia nahikoa dago adopzioan hartuak izateko adingabeen profil gehienak hartzeko. Beti daude adopzio familia topatzeko zailtasuna duten adingabeen profilak, oro har arrazoi hauei lotuta: gradu handiko desgaitasunen bat izatea, anai-arreben talde oso handiak izatea edota adin gehiagoko adingabeak izatea.

Adopzio nazionalaren barruan adoptatutako adingabeen portzentaje oso handi bat beste autonomia erkidego batzuetakoa da (horrek esan nahi du beste autonomia erkidego batzuek adoptatzeko adingabeak eskaintzen dituztela erkidego horietan ez dutelako berentzako familien profilik, eta Nafarroa da adingabe horiek hartzen dituen erkidegoetako bat; gure familiek oso balorazio positiboak dituzte prozesu horietan); hala ere, gure sistematik ez dugu adingaberik eskaini beste autonomia erkidego batzuek adopta ditzaten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00044. Galdera, harrerako familia gehiago erakartzeko kanpainaren emaitzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak harrerako familia gehiago erakartzeko kanpainaren emaitzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00044):

- Zein izan dira harrerako familia gehiago erakartze aldera Europako funtsekin ordainduta Nafarroako Gobernuak abian jarritako kanpainaren emaitzak, hartutako familien motaren arabera?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilariak ematen dion informazioa:

Zaila da neurtzea familia harrera zabaltzeko eta familiak lortzeko egindako esfortzuak izandako emaitza. Esparru sozialaren baitako edozein eskaintza, familientzako duten garrantzia eta inplikazioak bidez, ez da izaten ekintza jakin baten

bidez sustatzearen emaitza; aitzitik, harrera egiteko programan parte hartzeko erabakian zenbait fase egoten dira, eta beren burua eskaintzeko erabakia denboran zehar luzatzen da harrera egiteko hasierako asmoa izan zutenetik.

Familietan tankera horretako zeregin baterantz hurbiltzea kontsolidatzeko eta zabaltzeko balio izaten dute kanpainak. Koherentea da, pairatu behar ez zituzten egoeretan izan diren eta jasadako kalte horren ondoriozko zailtasunak dituzten adingabeen premiei aurre egiteko prest dauden familiak behar ditugulako.

2023an hasitako eta Europako Next Generation funtsekin finantzaturako kanpainaren bitartez 50 informazio eskaera kontabilizatu dira Hamar familia egokitzen deklaratuak izan dira, eta zortzik jadanik dute adingabe bat harreran.

Aurrekoarekin lotuta, familia talde batek familiarentzat eta behar duen adingabearentzat horren erabaki handia hartzen duenean, ez da gomendagarria adingabe baten eskaintzan atzerapen bat egotea, haren gaitasunetarako egokia bada.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00045. Galdera, arantza bifidoa eta/edo hidrozefalia duten pertsonak kronikoen estrategian sartuak izateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak arantza bifidoa eta/edo hidrozefalia duten pertsonak kronikoen estrategian sartuak izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, arantza bifidoaren protokoloari buruz (11-24/PES-00045): PEI-00413aren bidez jakitera eman zitzaigun Nafarroan arantza bifidoa eta/edo hidrozefalia duten pertsona-kopurua eta horietako zenbat zeuden sartuta kronikoen estrategian. Gai horri dagokionez, hauxe jakin nahiko genuke: Zer protokolo du O-NOZek pertsona horiek kronikoen estrategian sartzeko eta zer arrazoi daude pertsona horietako batzuk baino ez egoteko sartuta estrategia horretan? Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 1113 pazienteek dute hidrozefaliaren edota arantza bifidoaren diagnostikoa. Horietatik 226 kronikoen estrategian daude bertan sartuta egoteko irizpideak betetzen dituztelako. 163 paziente 14 urtetik beheitikoak dira, eta horietatik 15 kronikoen estrategian daude.

Pediatria:

Gaur egun, Nafarroan badago Gaixotasun Kroniko Konplexuaren Estrategia hurrengan, eta arreta ematen zaie arantza bifidoa duten eta estrategia horretako xede populazioa hautatua izateko irizpideak betetzen dituzten pazienteei; hauei, hain zuzen: 0 eta 14 urte arteko pazienteak, gaixotasun sendaezin estatikoa nahiz progresiboa dutenak eta irizpide osagarri hauetako bi edo gehiago betetzen dituztenak:

- Organo nahiz sistema nagusietako bitan afektazioa duten haurrak.

- Beste batzuekiko mendekotasun gradu handia dutenak zaintzako premiei dagokienez.

- Bizi funtzioetako baten bat (digestioa, arnasketa, giltzurrunetakoa...) optimizatzeko sistema teknologikoak behar dituztenak.

- Ospitale barneko hiru espezialistaren edo gehiagoren jarraipena izan behar dutenak.

- Urtean programatu gabeko bi ospitalizazio edo gehiago dituztenak.

- Desoreka metabolikoa egonez gero bizitza arriskuan jartzeko aukera dutenak.

- Gizarte zaugarritasun handia duten familiak.

Gure komunitateko hiru ospitaletako pediatria-ko profesionalak zuzenean identifikatu eta adierazitako irizpideak betetzen dituzten pazienteek osatzen dute hasierako xede populazioa.

Haur kroniko konplexuen unitateko pediatria bat da erreferentziako profesionala.

Unitate horrek une honetan arantza bifidoko hamabost pazienteri ematen die arreta.

Helduak:

Helduen kasuan prozedura desberdina da paziente kronikoa artatzeko definitutako profil batzuk daudelako (pluripatologia, dementsia, diabetes, bihotz gutxiegitasuna, BGBK, fibromialgia eta neurodegeneratiboak). Profil bakoitzak sartzeko irizpide espezifikokoak ditu eta definituta dago zein den erreferentziatzko espezialista.

Profil pluripatologikoaren kasuan, xede populazioa GMA 4 eta 5 bitartean duten eta patologia hauetako hiru edo gehiago dituzten pazienteek osatzen dute:

- BGBK
- Bihotzaren kongestio gutxiegitasuna
- Giltzurruneko gutxiegitasuna
- Asma
- istripu zerebrobaskularra
- Gibleko gutxiegitasuna
- Kardiopatia iskemikoa
- Diabetes mellitusa
- Dementsia

Gaur egun, arantza bifidoko 226 paziente daude zeinek, gainera, irizpideak betetzen dituzten paziente kronikoaren eta pluripatologikoaren estrategian sartzeko.

Askotariko profiletako (medikuntza, erizaintza, fisioterapia eta beste batzuk) eta espezialitatetako (Oinarrizko Osasun Laguntza, Urologia, Traumatologia, Errehabilitazioa) askotariko profesionalen arteko koordinazioa kasu horietan berebizikoa da. Planteatzen den eredu sanitarioak xede du paziente horietako bakoitzaren arreta kudeatzea modu integratuan eta indibidualizatuan, eta horri ekiteko pazientearen eta bere ingurunearen balorazio integral egokia egin behar da.

Haur kroniko konplexuen Estrategian 14 urtetik gorako pazienteak sartu ezin badira ere, jada sar-tuta dauden eta adin horretara iritsi direnen jarrai-

pena era indibidualizatuan egiten ari da, espezialitate pediatrikoetatik helduentzako espezialitateetarako trantsizio eredu orokor bat prestatu arte.

Horrekin lotuta, Nafarroako Arantza Bifidoaren eta Hidrozefaliaren Elkarteko kideekin izandako azken bileraren ostean, helduak artatzeko eredu bat prestatzea pentsatu dugu, kronikoen estrategian oinarritua hala behar duten pazienteentzat, haur kroniko konplexuen unitatean artatuak izaten ari direnen trantsizioa errazteko xedez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00046. Galdera, adopzioarako prozeduran eta irizpideetan izandako aldaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak adopzioarako prozeduran eta irizpideetan izandako aldaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00046):

- Adopzioari dagokionez, aldaketarik egon al da Nafarroako Gobernuak azken urteetan erabilitako prozeduran eta irizpideetan? Hala bada, zeintzuk?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak konseilariak ematen dion informazioa:

Adopzioaren kasuan, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko eta haien familiak, esku-bideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legeak aldaketa nabarmenak eragin ditu adopzioen prozesuetan.

Honako hauek dira esanguratsuenak:

- Ezarri da adingabeak adoptatzeko proposamenaren aurretik adingabeen adoptabilitatearen deklarazioa exijitzen dela.

Familia eskatzaileei adingabeak esleitzen zaizkie soilik irizpide teknikoetan oinarrituta. Eskaeren antzintasunaren denbora irizpidea soilik familien artean baldintzen berdintasuna dagoenean hartzen da kontuan.

- Adopzio irekiaren alde egiten da, behin adopzioa egin ondoren familia biologikoarekin harremanak izateko aukera ematen duena.

- Indartu eta sustatu egiten da adingabe adoptatu guztientzat jatorriak bilatzea.

- Desagertu egiten da adoptatzen dutenen eta adoptatuen arteko gehieneko adinaren irizpidea, egokitasunari buruzko balorazioan kontuan hartzeko irizpide izanda.

- Zazpi urtetik gorako adingabeen adoptabilitatea sustatzen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00047. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak indarra hartu zuenetik hark izandako aplikazio mailari buruzko txostenik egoteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak indarra hartu zuenetik hark izandako aplikazio mailari buruzko txostenik egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00047); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

5/2018 Foru Legea indarrean sartu zenez geroztik, ba al dago Nafarroako Gobernuko departamentuetan informazio publikoaren ardura duten atalak atxikita dauden organo guztiek Gardentasunari buruzko Legearen aplikazio mailari buruz egindako urteko txostenik? Eta enpresa publiko guztietan?

11-24/PEI-00069 informazio eskaeraren erantzunean jadanik azaldu genizunez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15.- artikulua haxe ezartzen du: "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa-

ren esparruan, informazio publikoaren ardura duten unitateak atxikiak dituzten organoek txosten bat eman beharko dute urtero, bakoitzaren esparruan legeak izan duen aplikazio mailari buruzkoa, eta gardentasun arloko eskumenak dituen departamentuko titularrak ezartzen duen edukiarekin". Aipatutako arauaren 2.1 artikulua desberdinketa egiten du Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioetat jotzen denaren eta, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari lotutako sozietate publikoen artean (2.1 artikulua a) eta b) letrak), ez baitira gauza beratzat jotzen. Beraz, 15. artikulua aplikatzekoa zaio Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari, eta ez, ordea, berorri lotutako sozietate publikoei.

Halaber, beste ekimen parlamentario batzuei lotuta (11-23/PEI-00561 eta 11-24/PEI-00069) Nafarroako Gobernuak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeari buruz duen informazio guztiaren berri eman genizun.

Horrez gain, lehen aipatutako informazio eskaera horri erantzuteko (11-23/PEI-000561), jakinarazi genizun Lehendakartzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak lanean diharduela urteko txostenaren eredu bat sortzeko informazioaz arduratzen diren unitateen lana errazteko.

Horrenbestez, dugun informazio guztia eman dugu, hau da, dauden txosten guztiak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00048. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikulua betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikulua betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikulua betetzeari buruz (PES-00048). Hona hemen horretaz ematen den informazioa:

2023an Parlamentuari egin zenion informazio eskaeraren harira (11-23/PEI-000561) jadanik jakinarazi genizunez, Nafarroako Gobernuak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikulua buruz duen informazio guztiaren berri eman genizun.

Horrez gain, lehen aipatutako informazio eskaera horri buruz (11-23/PEI-00561), jakinarazi

genizun Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak lanean diharduela urteko txostenaren eredu bat sortzeko informazioaz arduratzen diren unitateen lana errazteko.

Izan ere, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru/Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, informazio publikoaren ardura duten unitateak atxikiak dituzten organoek txosten bat eman beharko dute urtero, bakoitzaren esparruan legeak izan duen aplikazio mailari buruzkoa, eta gardentasun arloko eskumenak dituen departamentuko titularrak ezartzen duen edukiarekin".

Beraz, jadanik jakinarazi zitzaizunarekin bat, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak, Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiarekin batera, lanean dihardu galderan hizpide den 15. artikuluan aipatutako txostenek izan behar duten informazioaren edukia jasoko duen eredu sortzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00049. Galdera, geure ANECA bat izateko aukerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak geure ANECA bat izateko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ANECA propioa izateko aukerari buruz (11-24/PES00049). Hona Nafarroako Gobernuko

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Legegintzaldi honetan zehar gure lehentasuna da unibertsitateen lehenengo foru legea ateratzea, bai eta gogoz lan egitea ere, egiten ari garen moduan, beken eskumena eskuratzeko.

Etorkizuneko foru lege horretan helduko zaie unibertsitateen alorreko gai guztiei, horien artean zure galderan hizpide den arrazoi zehatzari buruzkoak hartuta. Orduan baloratuko da aukera hori, eta, edonola ere, behin inplikaturik dauden askotariko eragileen jarrera ezagutu ostean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00050. Galdera, curriculumeko prestakuntza-praktika ez-ordainduak egiten dituzten ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioetarako ordainak emateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak curriculumeko prestakuntza-praktika ez-ordainduak egiten dituzten ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioetarako ordainak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-24/PES-00050 galdera aur-

keztu du, idatziz erantzuteko. Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

1. Enpresan praktikak egiten dituzten artean lanbide heziketako ikasleen kotizazioen hoberia 2024an % 95ean finantzatzen du Gizarte Segurantzak, eta % 5ean, berriz, Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Kiroleko Ministerioak.

2. Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Kiroleko Ministerioak ez duela komunikazio ofizialik eman lanbide heziketako ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioen 2025. urterako hoberiari buruz.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-24/PES-00051. Galdera, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzearen ondorioz NUPen izandako kostu-igoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzearen ondorioz NUPen izandako kostu-igoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzeari buruz (11-24/PES-00051). Hona

Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin prestatzen eta negoziatzen ari da urte anitzeko finantzaketako hurrengo hitzarmena, eta lege hori ezartzearen kostuari helduko zaio bertan.

Aldi berean Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateetako Ministerioarekin lanean ari gara unibertsitate sistemaren modernizazioa sustatzeko eta Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzeko sortu den lan batzordean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00052. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria dela-eta legegintzaldi honetarako dauden planei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria dela-eta legegintzaldi honetarako dauden planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Otsailaren 16a

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du legegintzaldi honetan Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriaren inguruan dauden planei buruz (11-24/PES-00052). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriak honako hauek ditu xede: sustapena eta aholkularitza ematea nekazaritza-elikagaien enpresak jartzeko Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian; Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria zuzendu, koordinatu eta kudeatzea; ura, lurruna edota CO₂a produzitzea nahiz hornitzea zenbait temperatura eta presiotan; produzitzen diren askotariko produktu energetikoak merkaturatzea eta banatzea Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian kokatutako enpresei, eta, egoki izanez gero, beste batzuei ere bai, eta, azkenik, zerbitzu zentralizatuak ematea Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian koka-

tutako enpresei, askotariko alorretan, enpresak finkatzea eta enpresen jarraitutasuna sustatzeko.

Hori betetze aldera, jadanik lanean ari gara Tuteran hidrogeno berdearen instalazio berria martxan jartzeko.

Otsailaren 7an publikoki adierazi nuenez, Nafarroako Gobernuaren asteroko saioan Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriari baimena eman zitzaion bazkide pribatu bat kontratatzeke, kapital mistoko sozietate bat eratzeko, horrek eraiki eta ustiatu dezan enpresa parke horretan jartzekoa den hidrogeno berdea ekoitzi eta merkaturatzeko instalazioa.

Zehazki, proiektuan jasotzen da elektrolizagailu deritzon gailu bat jartzea, energia berriztagarri bidez elikatua.

Gailu hori gai izanen da ura deskonposatu eta hidrogenoa eta oxigenoa banatzeko, erregai fosilak beharrezko energia berriztagarria erabilita. Energia hori emanen zaie inguruan kokatutako enpresei.

Hidrogeno berdeak ez du karbono isuririk sortzen, eta, hortaz, jotzen da alternatiba funtsezkoa dela kutsadura murrizteko.

Proiektu horren bidez industria garbiago baterantz egiten dugu aurrera, subiranotasun energetikoa sustatu, ekoizpen eredia eraldatu eta deskarbonizaziorantz aurrera egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

